



2011-2012 herriz herri Euskal Herriko Mus Txapelketa

Antolakuntza eta funtzionamendu zirkularra

HERRIAN MUS TXAPELKETA ANTOLATZEKO EGIN BEHARREKOA

- ANTOLAKUNTZArekin HARREMANETAN JARRI:

- Zonaldeko arduradunarekin harremanetan jarri. Berak jarriko ditu zure eskura mus txapelketa antolatzeke behar dituzun bitartekoak:
 - Jarraipen fitxa: amaieran beteta itzuli beharko dena.
 - Mus Txapelketako kartela.
 - Harremanetarako e-posta orokorra: herriak@euskalherrikomustxapelketa.org
 - Argibideetarako telefonoak: (0034) 945 102 970 eta (0034) 649 995 038

- AZPIETIGURA LOTU:

- LEKUA: Toki txukun bat lortzea komeni da. Muserako egokia dena, mahaiak.e.a. dituen elkarte edota taberna handia izan liteke. Tokian musean aritzeko ohitura izatea ere garrantzitsua da, ahalik eta naturalenen antolatu behar bait dugu herriko kanporaketa.
- LANABESAK: Mantelak, tantoak eta kartak izango dira lanabes garrantzitsuenak. Ez ahaztu handik edo hemendik lortzea!
- SARIAK: Parte hartzaile bakoitzari ARDO BOTILA bat emango zaio ororigarri gisa. Ardo botila txapelketa ospatzen den lokal edo elkartetik hartzea gomendatzen da (gehienez 2€ko balioa). Oroigarri hau txukuntzeko pegatinak helaraziko zaizkizue, zuek ardoari eransteke.
 - Horrez gain gomendatzen da herrietan bestelako sari batzuk ere jartzea. Tokian tokiko laguntzaileak bilatuz. Sari orokorrak laster izango dituzue ikusgai www.euskalherrikomustxapelketa.org webgunean.

- EGUNA FINKATU: Herrietako kanporaketa egiteko azken eguna urtarrilaren 31

- EGUNA eta ORDUA: Garrantzitsua da kontutan izatea herrian edo auzoan antolatzen diren beste ekimen edo egitasmoekin uztargarri egitea. Galdetu ea beste txapelketa edo ikuskizunekin elkar tronpatu ez gaitezen..
- WEBGUNERA ABIXATU: Garrantzi handia izango du propaganda egiteari begira webgunean zure herriko datuak txukun gordeak izateak. Webgunetik zonaldeko komunikabideetara mezuak bidaltzen saiatuko gara eta horretarako datuak behar ditugu. Data eta ordua finkatu bezain laster bidali herriak@euskalherrikomustxapelketa.org helbidera edo deitu (0034) 945 102 970 edo (0034) 649 995 038 telefonora.

- PROPAGANDA EGIN:

- INFORMAZIO GUZTIA
 - www.euskalherrikomustxapelketa.org helbidean duzu informazio guztia, baita zirkular honetan ere. Beraz ez duzu bururik hautsi behar ezer asmatzen.
- KARTELAK eta ESKU ORRIAK
 - Kartel orokorrak iritsiko zaizkizu. Kartel horietan zure herrian non eta noiz izango den zehaztu beharko duzu.
 - Webguneko propaganda atalean beste bitarteko batzuk ere izango dituzu eskura, besteak beste:
 - Eskutitza, elkarte edo talde ezberdinei bidaltzeko.
 - Esku orria, kopiak atera eta tabernetan uzteko. Esku orri hauetan herrietako laguntzaileak jartzeko lekua izango duzue.

- **KANPORAKETA EGUNA:**

- ANTOLAKUNTZA ZEHAZTASUNAK
 - DATAK
 - HERRIETAKO KANPORAKETA EPEA: 2011ko urtarrilaren 31a.
 - Herrialdeko kanporaketak 2012ko OTSAILAren 24, 25 eta 26an burutuko dira.
 - FINAL NAGUSIA 2012ko MARTXOAREN 17an Arbizun, Nafarroa Garaian.
 - Izen ematea:
 - Bikote bakoitzak 20€ jarri behar ditu izenemateko unean.
- MUS ARAUAK
 - Araudia orokorra landuta dago eta eskuragarri duzue www.euskalherrikomustxapelketa.org webgunean.
 - Herrietarako zenbait aurrerapen:
 - Herrietan, 4 edo 8 erregetara jokatu ahal izango da, ohiturak agindu bezala.
 - Herrialdeko kanporaketan 4 erregetara jokatuko da.
 - Euskal Herriko Mus Txapelketaren final handia 4 erregetara jokatuko da.
 - Partida bakoitza, 8 hamarrekotako hiru jokoz (ustelez) osatua dago. Hala ere, 6 hamarrekotara edo bi jokatara izatea ere, erabaki dezake antolakuntzak.
 - Keinu berezirik ez da onartuko, araudian daudenak bakarrik. Araudia denen eskura izango da mus leku bakoitzean baita www.euskalherrikomustxapelketa.org webgunean.
 - Hogeita hamaika erreala edo "31 real" delakoa ez da kontutan izango.
 - Aurkariak ulertzen ez duten hizkuntzarik erabiltzea ez da onartzen.
 - Bestelako edozein zalantza argitzea, bertako arduradunen esku gelditzen da.
- ORDEZKARITZA HERRIALDEKO KANPORAKETARAKO
 - Herrialde bakoitzeko antolakuntzak, sailkatu kopurua orekatzeko eskubidea eta bete beharra izango du. Herrialde edo herri bakoitzari dagokion bikote partaidetza gainditzen denean, herrialde bakoitzeko antolakuntzak herri nahiz eskualde mailako kanporaketak antolatzeke ahalmena izango du, herrialde mailako ordezkariak orekatzeko helburuarekin.
 - Parte hartzean oinarrituriko ordezkariak joango da herrialdeko kanporaketara:
 - Herriko mus kanporaketa onartzeko gutxienez lau bikote parte hartu behar dute.
 - 4tik - 10 bikote arte : bikote bakarra herrialdera.
 - 11tik - 18 bikote artean: bi bikote herrialdera.
 - 19tik - 25 bikote artean: hiru bikote herrialdera.
 - 26tik aurrera: lau bikote herrialdera.
 - Ordezko bikote baten kontaktua ere gorde beharko da badaezpada ere.

- **AMAITZEKO:**

- Herrian beteriko ANTOLAKUNTZARAKO AFITXA koordinatzaileari pasa.
- Parte hartze dirua ondorengo kontuan sartu :
 - Euskadiko Kutxa (Caja Laboral Popular) – **3035 0155 36 1550047044**
 - Kontzeptua: **HERRIAREN IZENA + bikote KOPURUA + taberna edo TOKIAREN IZENA.**
 - adibidez: **SEGURA+16+ELORRI taberna**
- Herriko informazioa eta argazkirenbat atera baduzue herriak@euskalherrikomustxapelketa.org helbidera bidali.

Euskal Herrian, 2011ko irailean.

Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatzaile taldea.

